

20.000 MILIOI AURPEGIKO DATU BASEA BAIMENIK GABE OSATZEN ARITU DA CLEARVIEW AI ENPRESA

Ikusirik ia 8.000 milioi herritar gabela eta New-Yorken kokaturiko Clearview AI-k 20.000 milioi argazkiz gora dituela, baliteke, irakurle, zure aurpegia ere izatea datu base horretan. Horrela atera zen eskandalua: fama handirik gabeko herritar xumeak oharturik haien bisaia ere daudela bertan. Aurpegi ezagutzarako altxorra, polizia, mugazain, enpresa pribatu baita norbanako batzuk erabilitako datu basea da. Azken datuen arabera, 3.100 bezeroz gora ditu. Baimena eskatu gabe ari da datuak pilatzen, eta geroz eta herri gehiagotan isunak jaso arren, berdin-berdin segitzen du.

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Aurpegi ezagutzaren esparrua garrantzua da, herritarrok gehiegi jakin gabe, eta seguruenik zure eta nire bisaiei esker gainera. Bai... hori ezin liteke, eta ezin daiteke gertatu, baina gertatzen ari da. New Yorkeko enpresa Clearview AI-k jasotako azken zigorriari esker eguneratu dugu errealitate horretaz genuen informazioa: 20 milioi euroko isuna jarri dio informatikari askatasunen esparrutik begiratzen dion Frantziako Cnil egitura independenteak. Hain zuzen, baimenik gabe dabil interneten kausituriko argazkiak bereganatzen, guztira 20.000 milioi aurpegiko datu-basea osatuz. Webguneetatik zein sare sozialetatik lapurtzen ditu argazkiak. Gehiago zabalak ez daki datu-base horretan dagoela -zurea bertan dagoen jakin dezakezu, ordea, Clearview AI-ri eskaera bidaliz; honek erantzuteko betebeharra dauka, eta denbora hartu arren, erantzun, erantzunen dizu-.

Konpainiak irudi-baserako sarbidea merkaturatzen du, pertsonak argazki bidez aurkitzeko bidea irekiz poliziei, instituzioei zein enpresa pribatuei. *Nextin* webgunean irakurri daiteke 3.100 bezero dituela enpresak: FBI, AEBetako Barne Defentsarako Departamendua; Walmart enpresa ezin kapitalistagoa; Bank of America bankua; Macy's zentro komertzial katea; baita beste hainbat herritarren Poliziak eta mugazainek ere. Duela bi urte *BuzzFeed* komunikabideak bideratu iker-

ketaren arabera 27 herritan presente zen.

Europar Batasunak Datuen Babeserako Araudi Orokorreko seigarren artikulua bermatu behar liguke herritarren baimena ala eskaera esku artean, edota norberaren eskubideak zein interesak zangopilatu gabe erabiltzen dituela datuak. Erabiltzaileak -kasu honetan Clearview AI- interes legitimo bati tiraka erabili behar ditu, beti ere herritarren eskubide eta interesen gainetik pasa gabe, eta argi utziz helburua betetzeko ez dagoela hain intrusiboa ez den beste biderik.

Baldintza horiek ez dituelako betetzen zigortu zuten Clearview AI urrian, 2020ko maiatzaz geroztik hainbat herritarrek Cnil-rengana jorik. Enpresaz hitz egiten entzunik, kuriositatez haien identitateari buruzko daturik ba ote zuten eskatu eta beraien harridurarako, argazki bat baino gehiago jaso zituzten hainbatek. Bizitza pribatuaren errespetuaren bermeari begiratzen dion Privacy International Gobernu Kanpoko Erakundeak ere jo zuen Cnil-rengana iazko maiatzean.

Hastapen batean lapurketa horiekin bukatzeko eta argazkiak datu-basetik kentzeko eskatu zion Cnil-ek, baina Clearview AI ez zion inolako segidarik eman. Hori horrela, isuna jarri eta abenduaren 20 arte dauka Frantziako herritar guztien datuak ezabatzeko -hori ezean, egunero 100.000 euroko zigorra gehituko dio-. Cnil-aren partetik sekulan ikusi ez den

zigorrik gogorrena da Clearview AI-ri bideraturikoa.

Baina berdin zaio Hoan Ton-That enpresaburuari: "Interneten publiko den argazki batek ez digu erraten pertsona frantsesa den; hori horrela, ezinezkoa zaigu frantses herritarren datuak ezabatzea". Argudio bera erabili ohi du beste salaketentzat ere. Hain zuzen, Frantzia ez delako Clearview AI zigortzen duen bakarra: Erresuma Batua -8,85 milioi euroko isuna-, Italia -20 milioi eurokoa-, Suedia -250.000 eurokoa-, Kanada, Austria, ala beste, herri anitzek arrazoi beragatik zigorturikoa da. Ilegalitate osoan dabil Clearview AI gure bizi pribatua lapurtzen, eta gehienetan isunei bizkarra erakusten die gainera.

Cnil-ren zigorren biharamunean *Le Monde*-n plazaratu zuen irakurketa abokatu Alexandre Lazarèguek: "Lanjerra" ikusten dio gaur egungo koadro juridikoari, hain justu, bere horretan Europako Datuen Babeserako Araudi Orokorrek ez duelako debekatzen "profilatzea" -herritar baten jarrera aurreikusteko edo analizatzeko egin daitekeen datu pertsonalen erabilpena; adibidez, begibistakoena dugu gure kontsumoen segipena...-. Hori egin ahal izateko arrazoiaren artean dago "interes orokorrarena", abokatuaren ustez "guztia sartu daitekeen nozioa". Are gehiago, Europak datuak "informazio sinple" gisa definitzen dituela deitoratzen



20.000 MILIOI

Datu-base erraldoia ilegalki osatu duelako, 20 milioi euroko isuna jaso du Frantziako Estatuan. Beste herri anitzek ere zigortu dute, datu pertsonalak baimenik gabe eskuratzegatik.

du; eta horrek dakarren “insegurtasun juridikoarekin” bukatu beharra ikusten du. Aterabidea baluke: datu pertsonalak “ondasun” gisa ikusia balira, zailagoa luke baimenik gabeko erabilpena.


OINARRIA, ESKUIN MUTURREAN

33 urte ditu enpresaburuak, Hoan Ton-That izenekoak. 21 urte zituela sortu zuen bere lehen konpainia, informatikaren sektorean, posta elektronikoa pirateatzeko. Ondotik espezializatu zen aurpegi ezagupenean. Eskuin muturrean kokatzen da, eta jakina da ikuspegi horren zabalpenaren alde ari dela. Donald Trumpen hautagaitzaren alde jardun zuen, eta azken horren garaipena ospatzeko festan ere egon zen.

Mike Cernovich maskulinista eta konspirazionista edota Andrew ‘Weev’ Auernheimer *hacker* neo-nazia ditu lagunaren artean, *Korii* komunikabidearen *Les liaisons dangereuses de Clearview avec l'extrême droite* [“Clearview-ek eskuin muturrarekin daukan harreman arriskutsuak”] erreportajearen ageri denez. Clearview AI sortzeko orduan ere alde horretako laguntza jaso zuen. Tartean, Tyler Bass supremazista zuzaria, Marko Jukic faxista ospetsua eta Charles C. Johnson eskuin muturreko aktibista. Diputatu zein prokuradore kontserbadoreak ere ondoan zituen –eta ditu, oraindik ere–. Izen guztiak atxikitzea zaila izanik, borobildu daiteke erranez Johnson horrek sorturiko WeSearchr plataforman elkartu ohi zirela guztiak –eskuin muturreko egi-

tasmoak diruztatzeko crowdfunding gunea zen eta 2015 itxi zieten–.

Hoan Ton-That bera NRx edo *Argi Ilunak* izeneko mugimendu neofaxistaren zale litzateke, *Korii*-ren arabera. *Huffington Post* egunkariak azaltzen duenez, “Silicon Valleyko zirkulu libertarioetan hamarkada bat baino gehiagoan eragin duen eskuin arrazista eta misoginoaren *geek* multzoa da NRx. [...] Haren kideek Peter Thiel laudatzen dute, LSDa mikrosifikatzen dute, eta ideia totalitarioak edertzen dituzte, demokrazia zapuzteko aitzakia morala ematen dien sasi-intelektual izaeraren bidez”. Erreportajea bukatu, Clearview AIri datu eskaera eta ezabatze manua bidaltzeko tartetxoak hartzeak merezi luke... ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

info@zinkunegioptika.com

www.zinkunegioptika.com

